

ELKARTEAK

Gure aplikazioari ahalik eta erabilera egokiena emateko asmoz, zenbait enpresarekin hitz egiteko asmoa daukagu, aplikazioaren eta gure bezeroen arteko harremana zuzena izan dadin.

Buruan dauzkagun enpresak honakoak dira: Bosch, Yammaha, Balay eta Fagor, izan ere, pentsatzen dugu enpresa hauek direla ospetsuenak eta erabilienak. Beraz, modu

honetan, enpresa hauekin adostasun batera helduz, gure proiektua gizartean errazago zabalduko dela pentsatzen dugu.



Bezeroen eta aplikazioaren arteko harremana zuzena izateko, aurretik aipatutako enprekin akordio bat egitea gustatuko litzaiguke. Pentsatzen dugu, sortuko dugun aplikazioa arrakastatsua izateko benetan lagungarria izango dela, izan ere, etxean ditugun gailu elektronikoek marka ohikoenak dira. Beraz, normalena aplikazioa erabiliko dutenen etxeko gailu elektronikoak ere marka haietakoak izatea izango litzateke, eta, horrela, arrakasta lortuko dugula iruditzen zaigu.

Akordiora heltzeko, gure proposamena honakoa izango litzateke: guk, haien gailu elektrikoetan gure sistema ezarriko genuke, modu honetan, gero, erabiltzaile bakoitzak beren mugikorretatik gailuen erabilera nahi bezala antolatzeko. Trukean, promozioa eta propaganda egingo diegu gure aplikazioan. Gainera, gailuak

erabiltzea erosoagoa bilakatuko denez (norberak edozein lekutatik edozein momentutan antola dezakeelako gailuen erabilera), ziur aski, elkarteek ere bezeroen gorakada bat edukiko dute, jendeak erosotasuna bilatzen baitu, eta, gure aplikazioaren bitartez, hori eskaintzen dugu.